

PATOLOGIA ETA OINARRIZKO ZAINKETAK

OCW UPV/EHU 2015

IRAKASKUNTZA-GIDA

Aurkibidea

1. Helburuak.....	2
2. Gaitasunak.....	2
3. Aurre-baldintzak.....	2
4. Deskribapena.....	2
5. Egitaraua.....	3
6. Metodologia.....	4
7. Kronograma.....	5
8. Irakasleak.....	6

Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 3.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial-Partekatu lizentziaren mende dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/> helbidean



1. Helburuak

Irakasgai honen helburua ikasleek oinarrizko ezaguera teoriko-praktikoak eskuratzea da. Hartara gai izan daitezen osasunean eta gaixotasunetan eragina duten faktoreak ulertzeko eta aztertzeke, eta osasun-gaixotasun egoeraren arabera erizaintzako teknikak eta zainketak ezagutzeko.

2. Gaitasunak

- Prozesu fisiopatologikoak, beren seinaleak, garapena, tratamenduak eta erizaintzako zainketak ezagutzea.
- Erizaintzako zainketetarako oinarrizko teknikak eta prozedurak ezagutzea, gaixoekin eta senitartekoekin harreman terapeutikoa ezarrita.
- Bizi-arriskuaren seinaleak antzematea eta oinarrizko bizi-euskarri maniobrak ezagutzea.

3. Aurre-baldintzak

“Patologia eta Oinarrizko Zainketak” irakasgaia OCW-n egiteko, komenigarria da giza anatomia eta fisiologiaren oinarrizko ezaguerak izatea.

4. Deskribapena

Irakasgai honetan gaixotasunak eragiten dituzten prozesu klinikoak, fisiopatologia, eta helduen zainketa orokorrak ikasten dira. Hala nola, osasuna eta gaixotasunekin erlazionatutako oinarrizko prozedura klinikoak.

Era berean, irakasgai honen bidez, ikasleek oinarrizko ezaguera teoriko-praktikoak eskuratu ditzaten lortu nahi da, gai izan daitezen osasunean eta gaixotasunetan eragina duten faktoreak ulertzeko, aztertzeke eta tratatzeko eta osasun-gaixotasun egoeraren arabera erizaintzako teknikak eta zainketak ezagutzeko.

5. Egitaraua

Irakasgaia ikasteko teoria bi ataletan banandu da. Lehenengoan patologiako oinarriak ikasiko dira eta bigarreanean erizaintzako oinarrizko zainketak. Hirugarren atal batean, irakasgaiaren praktikak daude. Praktiken helburua ez da teknika eta prozedura hauek egiten jakitea, baizik eta teknika eta prozeduren ezagutza lortzea eta azal daitezkeen zailtasun eta konplikazioak hobeto ulertzea. Dena den, irakasgaiaren proposatutako praktiketarako beharrezkoa den materiala lortzea erraza eta eskuragarria denez, ikasleak beraien ezagutza eta beraietan gerta daitezkeen zailtasunetaz ohartzeko egokiak dira. Praktiken atalean, proposatzen dena hurrengoa da: lehenik eta behin, praktikaren teoria irakurtzea eta ulertzea; ondoren, eskuragarria den materiala lortzea eta azkenik, praktikan proposatzen den zeregina burutzea.

Patologia orokorra

1. Gaia. Osasunaren eta gaixotasunen ikasketarako sarrera.
 - 1.1. Osasuna eta gaixotasuna
 - 1.2. Patologia eta klinika
 - 1.3. Genetika, herentzia eta gorpuzkera
2. Gaia. Gaixotasunen garapenean parte hartzen duten erreakzio eta defentsa mekanismoak.
 - 2.1. Inflamazioa
 - 2.2. Immunologia eta immunopatologia
3. Gaia. Shocka eta Odoljarioak.
 - 3.1. Shocka
 - 3.2. Odoljarioak
4. Gaia. Gaixotasunen seinale klinikoak.
 - 4.1. Sukarra
 - 4.2. Mina
5. Gaia. Agente fisikoek eta kimikoek eragindako asaldurak.
 - 5.1. Kontusioak eta zauriak
 - 5.2. Hotzak eta beroak eragindako asaldurak
 - 5.3. Eragile fisikoek eragindako asaldurak: erradiazioa eta elektrizitatea
 - 5.4. Eragile kimikoek eragindako asaldurak: intoxikazioak
6. Gaia. Onkologiako oinarriak.

Erizaintzako oinarrizko zainketak

7. Gaia. Neurri estandarrak eta isolamendu neurriak.
8. Gaia. Bizi-konstanteak/zeinuak.
9. Gaia. Tentsio-presio arteriala.
10. Gaia. Medikamentuen administrazioa. Administrazio ez parenterala.
11. Gaia. Medikamentuen administrazio parenterala.
12. Gaia. Zain barneko tratamendua.
13. Gaia. Inhalagailuak.
14. Gaia. Zundaia besikala.
15. Gaia. Sudur-urdailetako zundaketa.

Praktikak

1. Praktika. Gaixoen higiena eta oheak egitea.
2. Praktika. Bihotz-Biriki Berpiztea (BBB).
3. Praktika. Bendaia.
4. Praktika. Suturak edo josturak erizaintzan.

6. Metodologia

1. Irakasgaiaren gida ongi irakurtzea.
2. Eskuragarri dauden gaiak, bibliografia eta gomendatzen diren irakurketak erabiliz, edukiak ikastea. Ikaslearen esku geldituko da gaian zenbat sakontzen duenaren erabakia.
3. Gomendatzen diren praktiken ezagutza lortzea eta posiblea denean burutzea.
4. Irakasgaiak ikasten diren bitartean, autoebaluazio prozedurak eta ariketak burutzea.
5. Irakasgai osoa 15 astetan ematen da.

7. Kronograma

Gaiak, ariketak eta ebaluazio prozedurak	Asteak
1. Gaia. Osasunaren eta gaixotasunen ikasketarako sarrera.	1 eta 2
2. Gaia. Gaixotasunen garapenean parte hartzen duten erreakzio eta defentsa mekanismoak.	3
<u>2.2. Gaiaren ariketak</u>	3
3. Gaia. Shocka eta odoljarioak.	4
4. Gaia. Gaixotasunen seinale klinikoak.	5
5. Gaia. Agente fisikoek eta kimikoek eragindako asaldurak.	6 eta 7
6. Gaia. Onkologiako oinarriak.	8
<u>Autoebaluazio prozedura. Patologia Orokorra.</u>	8
7. Gaia. Neurri estandarrak eta isolamendu neurriak.	9
8. Gaia. Bizi-konstanteak/zeinuak.	10
9. Gaia. Tentsio-presio arteriala.	10
<u>Ariketak: Bizi-konstanteen orri grafikoa</u>	10
10. Gaia. Medikamentuen administrazioa. Administrazio ez parenterala.	11
11. Gaia. Medikamentuen administrazio parenterala.	11
12. Gaia. Zain barneko tratamendua.	12
13. Gaia. Inhalagailuak.	12
14. Gaia. Zundaia besikala.	13
15. Gaia. Sudur-urdailetako zundaketa.	13
<u>Autoebaluazio prozedura. Erizaintzako Oinarrizko Zainketak.</u> <u>Ariketak: Erizaintzako Oinarrizko Zainketak.</u>	13
Praktikak ikastea eta burutzea	14 eta 15

<u>Autoebaluazio prozedura. Praktikak.</u> <u>Ariketak: Praktikak</u>	15
--	----

8. Irakasleak

Irakaslea	Helbide elektronikoa
Ana Belén Fraile Bermúdez	<u>anabelen.fraile@ehu.eus</u>
Maidier Kortaxarena Rubio	<u>maidier.kortajarena@ehu.eus</u>
Gorka Vallejo de la Hoz	<u>gorka.vallejo@ehu.eus</u>
Itziar Hoyos Cillero	<u>itziar.hoyos@ehu.eus</u>